

ESKOLAGUNE

Ekoetxea Txingudi

Txingudiko hegaztiak

Bigarren Hezkuntza 1. zikloa

ARLOA/IKASGAIA: Natur Zientziak

Plaiaundiko Parke Ekologikoan egingo den kilometro bateko ibilbidean zehar bost habitat desberdinetatik igaroko gara eta horietan aurkitu daitezkeen hegazti espezie desberdinak identifikatzen saiatuko gara prismatikoen laguntzaz. Baietz gutxienez 20-25 espezie behatu edo entzun?

Eta hori ez da dena: eraztunketaren mundu harrigarrian murgilduko gara, hegaztiei eraztunak jartzeko simulazio batean parte hartuz, zientzialari profesionalek egiten duten bezala.